

# Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2021-2030





# Aurkibidea

## Aurkezpena

4

## 1. Sarrera

6

## 2. Erreferentzia esparrua

8

- 2.1. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak 10
- 2.2. Garapenerako Politiken koherentzia 13
- 2.3. Herritartasun globala 14
- 2.4. Lurralde esparrua 15

## 3. Printzipio gidariak

17

- 3.1. Epe luzea 17
- 3.2. Adostasuna 17
- 3.3. Genero berdintasuna 18
- 3.4. Parte hartzea 18
- 3.5. Ingurumena 19
- 3.6. baluazioa 19
- 3.7. Gardentasuna 20

## 4. Helburu estrategikoak

21

- 4.1. Pertsonen gaitasunak handitzea 21
- 4.2. Ekonomia sozial eta solidarioa 23
- 4.3. Desberdintasunak murriztea 24
- 4.4. Gobernantza 26
- 4.5. Kulturartekotasuna 27
- 4.6. Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa 28

## 5. Esparru operatiboa

29

- 5.1. Gipuzkoako Lankidetzaren Mahaia 30
- 5.2. Urteko esku hartze plana 30
- 5.3. Ebaluazioa 31
- 5.4. Aurrekontu konpromisoa 31

# Aurkezpena



Aitortu beharra dago bizitzen ari garen une hauek konplexutasun handikoak direla, eta zalantzak daudela garapenerako lankidetzaren etorkizunaz. Gizateriak arazo handiei egin behar die aurre: pobretasuna eta gizakien gabeziak, emakumeen aurkako indarkeria, gero eta desberdintasun handiagoak, jasanezintasuna ingurumenaren aldetik, gizakien segurtasun eza handitzea eta gordelekua bilatzen dutenen kopurua handitzea, etab. Erakundeen konpromiso politiko eta finantzario nabarmena beharko da horiei aurre egiteko..

Hala ere, azken hamarkadetan, gure gizarteetako zailtasun eta arazoek, eta, horiekin batera, elkartasun-balioen atzerakadak, ideia indibidualisten gorakadak eta xenofobia handitzeak –gure gizarteko azkenak eta azken-aurrekoak elkarrekin liskarrean aritzea eragiten duen populismoak hauspotuta–, jomugan jarri dituzte garapenerako lankidetzaren politikak.

Joera horiek geldiarazi eta elkartasun-ideien pisua eta garapenerako lankidetzaren politiken rola berreskuratu beharra dago. Horretarako, besteak beste, erakunde publikoak haiek finantzatzeko aurrekontu-zuzkidurak mantendu –eta, ahal den neurrian, handitu– behar ditugu, gure aurrekontuaren % 0,7ren helmugari eutsiz. Baina, horrez gainera, garapenerako lankidetzaren orientabidea berriz aztertu eta gaurkotu behar da, erronka berriei eta oraingo testuinguruari aurre egin ahal izateko.

Ildo horretan, Plan Zuzendari honen asmoa Gipuzkoako lankidetzaren eztabaidaren muinean egotea da, baita garapenerako lankidetzaren alorrean nazioartean planteatzen diren erronken erdigunean ere. Eta, aldi berean, haren funtzionamendua hobetzea du xede, urteotan metatutako esperientziari esker, era horretan haren eraginkortasuna, koherentzia eta inpaktu erreala handitzeko.

Gaur egun hobeto jabetzen gara gizartearen garapenari eragiten dion oro maila eta sektore asko hartzen dituen ikuspegitik landu behar dela, ez baitago era isolatuan landu daitekeen garapen-arloko arazo bakar bat ere, ondorioak edonon nabaritzen dira eta.

Hartara, gure oinarrizko erreferentziak 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) dira, zeinen bitartez heldu nahi zaien garapenerako lankidetzaren nazioartean mahaigaineratu dituen erronkei. Erronka horiek 2015eko NBEn Ebazpenean irudikatu ziren; horren bitartez onartu ziren Garapen Jasangarriko Helburuak, 2030. urtera arte nazioarteko komunitatearen ahaleginak bideratuko dituztenak.

Gure iritziz, agenda hori lantzeak eta onartzeak, mugak izan arren gauzatzeko behar diren tresna eta baliabideak zehazteko orduan, parean ditugun arazoak ulertzeko berebiziko diagnostikoa ematen digu, eta erakutsi egiten du zein erronka dituen garapenerako lankidetzak. Erronka horiek agenda unibertsal bat edukitzera behartzen gaituzte; zeinarekiko konpromisoa izango duten pertsona, herrialde eta erakunde guztiek, eta zeinean barne- eta kanpo-mailako betebeharrak eta erantzukizunak dituzten horiek guztiek. Horretarako, atzean utzi behar dugu azken hamarkadetan garapenerako lankidetzaren oinarria izan den Ipar-Hego ikuspegia, eta begirada globala ezarri behar dugu haren ordean.

Jaso ezazue elkartasunezko agurra.

**Harkaitz Millan Etxezarreta**

Kultura, Nazioarteko Lankidetzak, Gazteria eta Kirol diputatua

Gipuzkoako Foru Aldundia

# 1. Sarrera

---

Gipuzkoako Foru Aldundia 1990. urtean hasi zen garapenerako lankidetzaren arloan lanean. Urte horretan eratu ziren Garapenerako Lankidetzaren Funtsa eta zegoakion Kudeaketa Batzordea, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek osatua.

Hogeita hamar urtetik gorako esperientzia horretan, nabarmenak izan dira aldaketak, bai nazioartean, bai tokikoaren alorrean; baina aldaketa horiek guztiek izendatzaile komun bat dute: esparru politikoan, gizartean eta ekonomian gertatzen ari den globalizazio prozesua. Aldaketa horiek guztiek behartu gaituzte politika publikoek izan behar duten garapena eta zeregina birpentsatzera, eta, horren ondorioz, beste proiektio bat eman diogu sortutako erronken aurrean dugun jarrerari, bai administrazioaren aldetik, bai gizarte erakundeen eta beste eragile batzuen aldetik. Gaur egun hobeto jabetzen gara gizartearen maila eta sektore asko hartzen dituen ikuspegitik landu behar dela garapenari eragiten dion oro. Ez dago garapen arazorik, ezta inolako aukerarik ere, administrazio bakar baten esparru estuari lotua edo beste arazo edo aukera batzuetatik bereizirik dagoena. Migrazioaren fenomenoak harreman handia du klima aldaketarekin eta nazioarteko ekoizpen ereduarekin; sexuen arteko desberdintasunak, neurri batean bederen, ekoizpen eredu horren beraren arabera azaltzen dira, merkataritza elektronikoak eta saltoki handiek etengabe aldatzen dituzte kontsumo jarraibideak, eta horiek, aldi berean, klima aldaketari eragiten diote. Hau da, erlazio maila handia dago hainbat sektoretako dinamiken artean, eta, gainera, horren ondorioak kontinente guztietan agertzen dira, baita lurralde baztertuenetan ere.

Etengabeko aldaketa prozesu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia beharrezko erabakiak hartzen joan da denborarekin sortzen ari diren erronka berriei erantzuteko. 2004. urtean, gure Aldundiak garapenerako lankidetzaren programa propioa jarri zuen abian, gure lurralde historikoko GGKE-en eskaerei erantzunez. Gure lankidetzaren politika sendotzen joan zen ondorengo urteetan, eta nazioartean solidaritatearen alorrean diharduten erakunde gero eta gehiagok parte hartu dute horretan. Prozesu hark bultzada handia izan zuen 2007an, Foru Administrazioak Garapenerako Lankidetzaren, Berdintasun Politiken eta Giza Eskubideen Zuzendaritza sortu zuenean. Administrazioan maila berri hori laguntza handikoa izan zen lankidetzaren esparruko gure politika antolatzeke: tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean kokatu zen, oinarritzko printzipioak zehaztu ziren eta helburuak definitu eta gauzatzeko prozedurak identifikatu ziren. Hori guztia 2009-2011 aldirako Lankidetzarako Gida Planean jaso zen, zeinaren indarraldia beste urtebetez luzatu baitzen, hau da, 2012ra arte. Gure politikaren antolamenduak jarraipena izan zuen 2013-2016ko Lankidetzarako Foru Planaren eta garapenerako lankidetzaren jardura esparru estrategikoaren bitartez; 2016ko martxoan onartu eta Gida Plan hau onartu bitartean jarraituko du indarrean.

Esparru Estrategiko horixe izan zen 2030 Agenda delakotik eta Nazio Batuek 2015eko irailean onartutako GJHetatik eratorritako ikuspegia hartzen zuen Gipuzkoako lankidetzaren lehen dokumentua. Bertan jasotzen dira azken bost urteotan gure lanari estaldura eman dioten ildo nagusiak: garapen agendaren izaera unibertsala; ekitatea eta iraunkortasuna, zeharkako ikuspegi gisa, pobreziaren aurkako borrokan; ekoizpen eta kontsumo jarraibideek harreman sozial, politiko eta ekonomikoetan dituzten ondorioak kontuan hartzea; garapenaren ikuspegi integrala; eta hori guztia, giza eskubideen babesaren perspektiban oinarrituta.

Garapen prozesuekin eta horiek munduko leku guztietan agertzearekin zerikusia duen guztiaren lotura gero eta handiago hori da, hain zuzen ere, urte hauetan bizi izan dugun aldaketarik nabarmenena, eta aldaketa hori, duela urte asko hasi bazen ere, nabarmen bizkortu da hamarkada gutxi batzuetan. Aldaketa horietatik ikasbideak ateratzen jarraitzen dugu, eta baita testuinguru berrietara egokitzen ere. Ondorioz, Gida Plan honek aipatutako lankidetzaren esparru estrategikoari jarraitzen badio ere, aurretik aipatu dugun garapenaren konplexutasunarekin bat datorren lan planteamendua hartzen du bere gain, zeinak bilatzen baitu gure lurraldearen gaitasunetan eragitea eta desberdintasunen aurrean kontzientzia kritikoa sustatzea.

## 2. Erreferentzia esparrua

Gipuzkoako garapenerako lankidetzaren 2021-2030 Gida Planak zehazten du zer orientabideri lotu behar zaizkien babestutako ekimen guztiak: Nazioarteko Lankidetzakoak (NL), Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntzakoak (GEH) zein Laguntza Humanitariokoak eta Larrialdietarako Hezkuntzakoak (LHLH). Plan hau diseinatzeko, oinarri hartu dira herritarren artean kontzientzia kritikoa sustatzeari eta garatzeari buruz dauden adostasunak, bai tokikoaren esparruan bai nazioartean, eta azken helburua da ahalik eta modurik eraginkorrenean laguntzea pobrezia eta desberdintasunak murrizten, pertsonen gaitasunak transferituz, halako eran, non pertsona horien bizitza ez baita beren interesekin eta beraiek osatzen dituzten komunitateekin zerikusirik ez duten eragileek baldintzatuta egongo.

Gure lankidetzaren programak hasiera-hasieratik du zentzua gizadiaren zati handi baten bizitza gauza prekarioa eta ziurgabea bihurtzen duten egoera higuigarrien aurrean, eta horrek, pertsonen eta haiek osatzen dituzten taldeen garapen erabatekoa ez ezik, oinarriko giza segurtasuna (mundu guztiak baitu horretarako eskubidea) ere eragozten du. Belaunaldi batzuek bake garaia baino gehiago gerra garaia ezagutu dute, babes edo desplazamendu egoeran igaro dute bizitza osoa, fenomeno natural kaltegarriek astintzen baitituzte aldizka eta nahiko maiz, eta, bizi baldintza eskasak dituztenez, ezin dira horietatik babestu.

Gaur egun, COVID-19aren pandemiak are gehiago larritu du horien ahultasun egoera; hala ere, fenomeno hori mundu mailan hedatzen bada ere, ezin dira alderatu Iparraldeko gizarte deiturikoen pandemiaren ondorioei aurre egiteko dituzten bitartekoak eta zerbitzu publikoen hornitzaile gisa Estatuaren presentzia eskasa duten gizarte bitartekoak. Pandemia honek gogorrago eragiten die baliabide gutxiago dituzten tokiei, hain zuzen ere, familien borondatezko zein behartutako itxialdia eguneroko mantenuarekin bateragarria ez den tokiei. Eta talde zaugarri horien artean, emakumeen taldea da kaltetuena. Pandemiaren ondorioz gertatutako eskulanaren murrizketa handiagoa izan da emakumeen artean gizonen artean baino. Latinoamerikako eta Karibeko Ekonomia Batzordearen arabera, osasun krisi honen ondorioz, hamarkada bat egingo du atzera Latinoamerikak emakumeek lan merkatuan duten parte hartze mailari dagokionez<sup>1</sup>.

1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean osasuna kontuan hartzen bazen ere, pandemia honek agerian utzi du zenbateko garrantzia duen nazioarteko lankidetzak eskubide hori beteko bada, bai eta edozein garapen prozesuri ekiteko ere, gizartearen arloan zein arlo politiko edo ekonomikoan. Osasun krisi hori bizitzaren esparru guztietan ari da eragiten: hezkuntzaren zein ekoizpenaren mailako sektore estrategikoetan; gizarte harremanen eragiten die; nahasmendu emozionalak sortzen ditu, eta oso modu negatiboan eragiten die pobretutako komunitateen bizitzari laguntzen dioten oparotasun itzaropen ahulei. COVID-19aren pandemiak gogorarazi digu ezer ez dela posible osasunik gabe.

1 CEPAL. (2021): COVID-19 Txosten Berezia, 9. zk.: Emakumeen autonomia ekonomikoa berreskuratzen era jasangarrian eta berdintasunez.




Egoera berri horrek ez ditu aldatzen azken urteotan gure lankidetzaz-politikaren oinarri izan diren arauak; baina behartzen gaitu begirada berri bat hartzera, zeinak kontuan hartuko baitu abian jarritako garapen prozesuen zaugarritasuna komunitate mailako beren premiak asetzeari dagokionez estaldura txikia duten gizartearen mehatxu ugarien aurrean.

Azken batean, gaur egungo egoeran, berretsi egiten dugu Gipuzkoan egitura aldaketa lortzera bideratutako lankidetzaren alde egindako apustua; aldaketa horiek izango dira gaur egungo osasun krisiaren aurrean erantzun tarte zabaltzeko oinarriak, baina beste era batekoak ere bilatuko dira, garapen sendo eta autonomoa lortzeko aukerarik izan ez duten lekuetan.

Jarrera horretatik abiatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak zuzenean edo zeharka sustatzen dituen ekimenak zer orientabideren inguruan bideratu behar diren zehazten duen erreferentzia esparru bat definitzen dugu, zeina lotzen baita, aipatutako helburua ardatz hartuta, bereziki eragin beharreko lau interes arlo hauekin:

1. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak.
2. Herritartasun globalaren ikuspegia.
3. Garapenerako Politiken Koherentzia.
4. Gure lankidetzaren lurralde esparrua.

**Gipuzkoako lankidetzaren helburua pobrezari eta desberdintasunari aurre egitea da, haien kausetan eraginez.**



## 2.1. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriari dagozkion Helburuak

2030 Agenda 2015ean onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Izenpetu zuten herrialdeetako gobernuen artean lortutako adostasunaren emaitza ez ezik, gizarte zibileko erakundeek, sektore pribatuaren eta interesa zuten beste alderdi batzuen artean lortutako adostasunaren emaitza ere izan zen; mundu mailan eta garapenaren inguruan adostasun handiena izan duen plana ekarri du horrek berarekin.

2030 Agenda inflexio puntua da garapen arazoei aurre egiteko moduari dagokionez, aurretik nazioartean izandako beste akordio batzuekin alderatuz gero. Tradizionalki, arazo horiek herrialde pobretuei eragiten dien gaitzat hartu izan dira, eta, horrela, bi kategoria bereizten ziren: laguntza emaileena eta hartzaileena, eta horiei nagusiki finantza transferentzien bidez laguntzen zitzairen. Hala ere, garapenak planteatzen dituen erronkak handiagoak, konplexuagoak eta globalagoak diren heinean, agerian geratu da zer muga dituzten emailearen eta hartzailearen logikan oinarritutako norabide bakarreko harreman horiek. Eskema hori ez da eraginkorra pobreziari eta desberdintasunei aurre egiteko; gaur egungo ingurumen krisiari ezin zaio aldebiko planteamendu horren arabera heldu, eta are gutxiago gure planetako milioika pertsonari eragiten dien migrazioaren fenomenoari. Mundua bitan banatzen zuen lerroa, hau da, alde batetik, pobrezian bizi diren munduko lurraldeak eta bertan bizi diren gizarteak, eta, beste aldetik, garatuta dauden gizarteak, banantzen dituen lerroa, desagertu egin da. Gaur egun, Garapenerako Laguntza Ofiziala jasotzen duten herrialdeen arazotzat jotzen ziren haiek (desberdintasuna errentaren banaketan, zaugarritasuna klima aldaketaren aurrean, enpleguaren prekarizazioa...), munduko leku guztietan agertzen dira, maila handiagoan edo txikiagoan.

Beraz, lan eskema berri bat behar zen nazioartean, bat etorriko zena sortzen ari zen errealitatearekin eta azken hamarkadetan sortzen ari ziren joerekin; 2030 Agenda eta hari lotutako GJHak erantzun guztiz koherentea izan ziren testuinguru berri horri dagokionez. Proposamen hori hainbat alderditatik kritikatu da: gabeziak dituela, ez dela loteslea, edo hura gauzatzeko behar diren tresnak zehaztu gabe daudela. Edonola ere, akordio zabala da inondik ere, gizartearen garapena helburu duten politika askotarikoak hedatzeko topagune gisa eratu baita. 2030 Agenda izan da, gizadiaren historian, inoiz nazioartean lortu den adostasunik handiena, munduko herrialde guztiak inplikatu baititu; aurretik ez da inoiz halakorik lortu. Ondorioz, geure egin dugu eta Gida Plan honetan ezartzen diren printzipio eta helburuen arabera garatuko dugu hura.



[www.onu.org.gt](http://www.onu.org.gt)

Gaur egungo testuinguruaren konplexutasuna kontuan hartuta –pobrezia eta giza gabezia, emakumeen aurkako indarkeria, gero eta desberdintasun handiagoak, ingurumenaren jasangarritasunik eza, giza segurtasunik ezaren areagotzea, bereziki babes bilatzen duten pertsonena, eta, oro har, giza eskubideen urraketaren adierazpen ugariak kontuan hartuta–, GFAREN jarduerak ezin du garapenerako lankidetzak nazioartean planteatzen dituen erronketatik kanpo gelditu, erronka horiek jasota baitaude Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagozkion esparruetan. Agenda horri buruz eragilearen artean dauden adostasun maila desberdinak alde batera utzita, desberdintasunen eta bidegabekeriaren aurkako borrokaren aldeko lan esparrua komuna dela uste dugu, eta berriro diogu aukera hori baliatu behar dugula elkartasunarekiko eta giza eskubideen defentsarekiko konpromisoaren mezua zabaltzeko, bai erakunde publikoetan bai gizarte zibileko sektoreetan. Gure gaitasunetatik abiatuta, geure gain hartzen ditugu 2030 Agenda egituratzen duten 5 ardatz nagusi hauek:


## Pertsonak

Gure erabakia da pobrezia-arekin eta gosearekin amaitzea, haien forma eta dimentsio guztietan, eta gizaki guztiak beren gaitasunak duintasunez eta berdintasunez eta ingurumen osasuntsuan gauzatu ditzaten zaintzea.



## Planeta

Gure erabakia da planeta degradaziotik babestea, kontsumo eta ekoizpen jasangarrien bidez, baliabide naturalen kudeaketa jasangarriaren bidez eta klima aldaketari aurre egiteko premia-azko neurrien bidez, gaur egungo zein etorkizuneko belaunaldien beharrak ase ahal izateko moduan.



## Oparotasuna

Gure erabakia da gizaki guztiak bizitza oparoa eta osoa izatea eta ekonomiaren, gizartearen eta teknologiaren aurrerapena naturarekin harmonian gerta dadin zaintzea.



## *Bakea*

Gure erabakia da gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak bultzatzea, beldurrik eta indarkeriarik eduki ez dezaten. Ez dago garapen jasangarririk bakerik gabe, ezta bakerik ere garapen jasangarririk gabe.



## *Aliantzak*

Gure erabakia da Agenda hau inplementatzeko behar diren bitartekoak baliatzea, Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza indartu baten bitartez, zeina oinarrituko baita solidaritate handiagoan eta zentratuko baita pobreenen eta ahulenen beharretan, herrialde guztien, interesa duten alderdi guztien eta pertsona guztien lankidetzarekin.



Horrez gainera, bost ardatz horietako bakoitzean bi ikuspegi hauen zeharkakotasuna hartzen dugu kontuan:

- Ikuspegi feminista, uste baitugu emakumeen taldea dela, modu historikoan eta protagonistan, munduan ondo bizitzea sustatzen duen taldea. Eta, aldi berean, premiazkoa baita pairatzen duten diskriminazioari eta indarkeriari aurre egitea.
- Herritartasun globalaren ikuspegia, ezinezkoa izango baita edozein garapen helburu lortzea eta horri eustea, baldin eta ez baditugu herritar kritikoak, gure gizartearen eraldaketan aldaketa sakonak onartu beharraz jabetu eta nola egin behar den jakingo dutenak.

## **2.2. Garapenerako Politiken koherentzia**

2030 Agenda onartu aurretik, 2011n “Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Busango Aliantza” adostu zen, Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako 4. Foroaren esparruan. Politika publiko guztien koherentzia sustatzearen garrantzia nabarmentzen zen bertan; eta adierazpen horrek hedadura berria hartu zuen GJHak onartu zirenean. Horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du helburu horiekiko konpromisoa, eta, horretarako, beharrezkoa da gure administrazioko sailek gauzatzen dituzten politikak koherenteak izatea elkarren artean. Politika batean era batera jarduteak eta beste politika batean harekin bat ez datorren moduan jarduteak ez luke, berez, zentzurik. Baina, gainera, Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) erakundearen globaltasunetik hartuta, ez litzateke eraginkorra izango helburu bat lortzeko urratsak egitea, zuzenean edo zeharka helburu horri berari kalte egin diezaioketen beste ekintza batzuek neutralizatuko badituzte.

Horrela, bada, Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) gure erreferentzia esparruaren ardatzetako bat da, eta, horretarako, beharrezkoa izango da ahalegin horrekin konpromiso maila handien duten erakundearen laguntza izatea, baita GGKE-ena eta gure lurralde historikoko administrazioena ere, Foru Administrazioa barne, jakina.

**Politika publiko guztiek jarraitu behar diote pertsonen eta haien lurraldeen garapenerako helburu orokorrenei buruzko akordioak ezartzen duen bideari.**

Gure gain hartzen dugu, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilean onartutako “Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua”<sup>2</sup>. Garapenerako Politiken Koherentzia sustatzearen aldeko lana hiru orientabideren inguruan egituratzen da, eta hiru orientabide horiek gidatu behar dute, hain zuzen ere, GFaren Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren jarduna:

■ Egoera ahulenean dauden pertsonen garapenean eragin negatiboa izan dezaketen politikak identifikatzea eta saihestea, giza eskubideekiko errespetua ziurtatuz, batez ere emakumeena, jasangarritasun sozio-ekologikoarekin konprometituz eta, oro har, berdintasunezko gizarte bat defendatuz, nola Gipuzkoan, hala beste edozein lurraldetan.

■ Gure erakundearen sailen arteko lankidetzak sustatzea, haien lanek bat egin dezaten 2030 Agendako 5 ardatzetan proposatutako ikuspegiekin.

■ Erakundeen arteko elkarrizketa eta lana erraztea, gizarte sektorearekin adostuta, GJHetarako bidean koordinazioa eta aurrera egiteko ahaleginen osagarritasuna areagotzeko.

### 2.3. Herritartasun globala

2030 Agendaren eta GJHen ondoriozko ikuspegi berriak gure bizipen partikular eta kolektiboen ikuspegia eremu globalera hedatzea eskatzen du, munduarekin nola konektatuta gauden identifikatuz, Herritartasun Globalerako Hezkuntzak proposatzen duen moduan. Irakurtzen eta idazten ikasteak jadanik ezin du berez helburu bat izan; aitzitik, munduan gertatzen diren bidegabekeriaren kausez jabetzeko eta horiei aurre egiten ikasteko bide bat izan behar du. 4. GJHaren 4.7 xedean adierazten den bezala, zeinak kalitateko hezkuntzari buruz hau baitio: “...ikasleak ahaldundu behar dira erabaki informatuak eta ekintza arduratsuak har ditzaten, ingurumenaren integritatea, bideragarritasun ekonomikoa eta gizarte justu bat lortzeko gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat, kultura aniztasuna errespetatuz”. Helburu horrek munduko herrialde guztietako hezkuntza sektoreari interpelatzen dio, eta, hezkuntza formala ez ezik, hezkuntza informala eta ez-formala ere biltzen ditu bere baitan, Gobernuak eta gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin lan egiten duten erakundeek hura betetzen lagun dezaten eskatuz. Hezkuntza ez da ezagutzak transferitzen dituen ekintza bat besterik gabe; pertsonen arteko eta gure inguruarekiko harreman zibilizatuak eraikitzeke ezinbesteko funtzioetako bat ere bada.

GFak garapenerako lankidetzan izandako esperientzian txertaturik egon da ikuspegi hori babestutako esku hartze guztietan, eta esplizituki jasota geratu zen GFaren lehen Lankidetzak Gida Planean (2009-2011)<sup>3</sup>. Gipuzkoako GGKE-ek, baita tokiko bazkideek ere, Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren printzipio eta ildoetatik abiatuta

2 [https://www.elankidetzak.euskadi.eus/contenidos/informacion/coherencia\\_avcd/es\\_def/adjuntos/Marco%20Referencia%20CPD%20-%20CAS.pdf](https://www.elankidetzak.euskadi.eus/contenidos/informacion/coherencia_avcd/es_def/adjuntos/Marco%20Referencia%20CPD%20-%20CAS.pdf)

3 <https://www.bngipuzkoa.eus/WAS/CORP/DJGPortalWEB/servlet/djg.filenet.BajarArchivoCifradoServlet?id=I7STG&plugin=S>

planifikatu dituzte bai beren politikak, bai beren esku hartzeak; era horretara, kontzientzia kritikoaren sustatzaile bihurtu dira, dauden tokian daudela ere. Beraz, ez da ikuspegi berri bat gure ohiko lanean; edonola ere, lotuta dagoen mundu global baten ikusmoldeak berak, bai eta GJHetan jasotako izaera orokorreko proposamenek ere, eragile ugariren parte hartzea behar dute. Eragile horiek, halaber, zein bere sektorean, elkartasunaren balioekin bat datorren jarrera batetik hartu behar dituzte kontuan inguruneko errealitatea zein beren ekintzak. Ondorioz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza, zeharka bada ere, gure lankidetzaren osagaietako bat da, eta saiatzen da ahalik eta eragile gehienek parte har dezaten, GGKE-en bultzadaren bitartez, edozein dela ere haien esku hartzearen lurralde eremua.

**Pertsonen arteko eta gure inguruarekiko harreman zibilizatuak eraikitzeke ezinbesteko funtzioetako bat da hezkuntza.**

## **2.4. Lurralde esparrua**

Lurralde esparruaren ikuspegiak Gipuzkoako erakunde gehiago eta askotarikoagoak bultzatzen ditu garapenerako lankidetzaren prozesuetan parte hartzera, kontuan hartuta bai GFAREN jardunerako definitutako estrategia, bai nazioartean nagusi diren joerak.

Nazio Batuen 2030 Agenda herrialde kideetako gobernuen artean lortutako adostasunetik abiatuta diseinatu zen, eta bere baitan hartu zituen, halaber, agenda sinatu aurreko bi urteetan mundu osoan zehar prozesuan parte hartu zuten gizarte zibileko, sektore pribatuko eta hezkuntzaren sektoreko erakundeekin lortutako akordioak. Garapen arazoaren konplexutasunari erantzuteko, dokumentu hura ikuspegi integral eta unibertsalaren arabera eratu zen, eta ikuspegi horri erantzunez eman zitzaion 2030 Agendaren diseinuari izaera parte hartzailea eta zeharkakoa. Baina ikuspegi hori, diseinuan ez ezik, garapen jasangarria lortzeko helburuen definizioan ere erabili zen. Helburu horiek, bestalde, ez zaizkie soilik gobernuari zuzentzen, gizarte batean dauden gainerako eragileei ere zuzentzen zaizkie.

Eragile sozial eta ekonomiko guztien ikuspegi zabalago eta integratzaileago hori jasota gelditu da GFAREN 2020-2023 Plan Estrategikoan<sup>4</sup>, zeinaren arabera Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren helburuetako bat baita “Gipuzkoako gizartearen lankidetzaren esparruko giharra indartzea, eragile berriak bereganatuz”. Helburu hori, era berean, Etorrizuna Eraikiz ekimenean islatzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen horren helburua politika egiteko modu berri bat sustatzea da –irekiagoa eta lankidetzan oinarritua–, besteak beste, Gipuzkoa Cooperarekin programaren bitartez. Programa horren asmoa da, halaber, “Gipuzkoako beste erakunde batzuek inplikazio handiagoa izatea, eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) egiten dituzten ahaleginekin bat egitea”. Horretarako, Gipuzkoako eremu guztiak ordezkatzen dituzten erakundeek ekimenak sustatzen dituzte, Hegoaldeko erakundeekin batera.

**Gipuzkoak bere gaitasun guztiak baliatu behar ditu herritarrengan kontzientzia kritikoa sustatzeko eta pobrezia erabazteko eta desberdintasunaren arrazoiei aurre egiteko.**

Era horretara, Gipuzkoako gizarte sareko erakundeak munduko beste eremu batzuetako errealitateaz sentsibilizatu nahi dira, lehen urrats gisa Gipuzkoako gizartearen osatzen duten

<sup>4</sup> [https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/12167450/GFA\\_plan\\_estrategikoa\\_2020-2023-eu\\_labur.pdf/d03dc0fc-0124-88c4-d915-9740b94c5b6d](https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/12167450/GFA_plan_estrategikoa_2020-2023-eu_labur.pdf/d03dc0fc-0124-88c4-d915-9740b94c5b6d)

guztien ekintza integralagoa eta konprometituagoa izan dadin. Gida Plan honek, hortaz, bere gain hartzen du lankidetzaren eremuan eragile gehiago barnean sartzeko erronka, 2030 Agendaren eta Gipuzkoako beste plangintza dokumentu batzuen bidetik.

Beste alde batetik, 2030 Agendak NBEko kide diren herrialde guztietako gobernuak behartzen ditu GJHak betetzearen alde lan egitera, erreferentzia eginez ez bakarrik maila zentralari, baita administrazio gainerako mailai ere. Era horretara, tokiko gobernuak GJHak garatzen diren lurraldeetako administrazioaile eta kudeatzaile gisa duten garrantzia aitortzen da; beraz, eginkizun bereziki garrantzitsua dute helburu horiek betetzen direla bermatzeko, baina horien betetze maila, gobernu horietako bakoitzaren eskumen mailaren, lurralde plangintzarako gaitasunaren, lurraldeko eragileekin koordinatzeko gaitasunaren eta estatuko nahiz nazioarteko eragileekin koordinatzeko gaitasunaren araberakoa izango da.

Mundu osoko tokiko gobernuak beren lurraldeetan GJHak betetzearen bermatzaile gisa aitortzen zaien garrantzia abiapuntu hartuta, are garrantzitsuagoa da herrialde desberdinetako lurraldeen arteko lankidetzaren, herrialde horiek beren esperientziak, ikaskuntzak, ezaugarriak eta garapen jasangarriko proposamenaren oinarri den guztia partekatu eta garapenerako nazioarteko lankidetzaren proposamenen zerbitzura jartzen baitute. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren politikak zentzua izango du, baldin eta udaletan, erkidegoetan, estatuan eta Europan gauzatzen denaz bestelako balio erantsi bat ematen badio.

Administrazio guztiok partekatzen dugu pobrezia eta desberdintasunen aurkako ekintza oro biltzen duen espazio zabala; hala ere, lurralde bakoitzak ezaugarri bereziak ditu, ikuspegi politiko, ekonomiko eta sozialetik izan duen bilakaera historikoaren ondorioz, eta ezaugarri horiek erronka komun horri aurre egiteko gaitasun espezifiko batzuk nabarmentzen dituzte. Ezaugarri horiek kontuan hartzeko, zabaldu egin behar da garapenerako lankidetzaren parte hartzen duten erakundearen profila; bestela, gaitasun horietatik kanpo geratuz gero, goragoko mailako beste administrazio batzuetan egiten dena errepikatuko genuke eskala txikian, eta, era horretara, mugatu egingo genuke sustatzen ditugun ekintzen eragina eta eraginkortasuna.

Ikuspegi hori Gipuzkoan baino garatuago dago, orobat, gure lan eremu diren herrialdeetako zenbait lurraldetan. GGKE-en eta administrazio publikoen arteko ekintza koordinatua, GGKE-en eta komunitate kontseiluen artekoa eta GGKE-en eta hitzarmen mahaien artekoa... nahiko ohikoa da babesten ditugun proiektu askotan. Ikasi egin behar dugu komunitate pobretuen garapeneraren alde esku hartzeko modu horretatik, eta gure ezaugarrietara egokitu behar dugu. Eta, horretarako, ezinbestekoa da Gipuzkoan nagusi den lan eskemaren fokua hedatzea; izan ere, Gipuzkoan GFaren Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusira eta gure lurralde historikoko GGKE-etara mugatzen da parte hartzea, neurri handi batean.



## 3. Printzipio gidariak

lankidetzaren esparruan egin ohi dugun lana gidatzen duten printzipio gidariak dira edozein esku hartze motaren erreferentziako parametroak. Aurrez aurre ditugun arazoen egiturazko kausetan oinarritzen den lankidetzaren aldeko apustuari koherentzia ematen dion printzipio multzoa osatzen dute; lortutako emaitzen jasangarritasuna bilatzen da, mugarik gabe.

### 3.1. Epe luzea

Garapen agendaren ikuspegiak epe luzerakoa izan behar du, Gipuzkoako lankidetzaz Nazio Batuen planaren esparruan sartzen baita. Nazio Batuen planak 2030. urtean jartzen du helmuga.

Gida Plan hau globalizazioaren testuinguruan diseinatu da, eta, COVID-19aren pandemiak erakutsi bezala, munduko ekitate eza ugarien isla da. Globalizazio prozesua aldatu egin da denboraren joanean: boteregunea jadanik ez dago estatu eta gobernu gutxi batzuetan; aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeek eta, oro har, gizarte zibilak bat egin dute prozesu horrekin, eta, ondorioz, eragile gehiagok sartu behar izan dute elkarrizketan, garapenaren esparruko erronka bakoitzari aurre egiteko orduan hainbat errealitate gelditu daitezkeen islaturik. Ikuspegi berri hori presente dago 2030 Agendan. Logika integralaz eta diziplina anitzeko parte hartzeaz hitz egiten da bertan, garapen arazoei aurre egiteko eta planeta mailako garapenarekin konprometitutako herritar globalak sortzeko. Horretarako, adostasuna dago lankidetzak izan behar dituen helburu eraldatzaileen inguruan, helburu horiek bide eman diezaioten balio unibertsaletan (elkartasuna, justizia eta berdintasuna) oinarritutako garapen ereduari, halako eran, non arinduz joango baitira munduan dauden desberdintasunak.

Asmo handinahia da inondik ere, eta, gauzatuko bada, ezinbestekoa da balio horiek maila kolektiboan barneratzeko prozesu bat. Eta epe luzeko ikuspegitik baino ezin da egin hori, noski. Baina, horrez gain, gizartean kontzientzia kritikoa eraikitzea, gure ustez, gure harreman politiko, sozial eta ekonomikoen egituretan beharrezkoak diren eraldaketei ekiteko bitartekoa da, desberdintasunak eta sektore pobretuenen zaurgarritasuna murrizteko bitartekoa. Bi bektore horiek eraldaketarako kontzientzia kritikoa esamoldearen baitan laburbiltzen dira. Helburu hori, ordea, ezin da unean uneko esku hartzeetara mugatu; aitzitik, legegintzaldi batek mugatutako epetik haratagoko denbora muga duen prozesu batean kokatu behar da.

**Pobrezia eta desorekak eragiten dituzten harreman sozial, politiko eta ekonomikoak eraldatzera bideratutako garapen prozesu orori epe luzeko ikuspegiarekin aurre egin behar zaio.**

### 3.2. Adostasuna

Lankidetzaz eragileak bat datoz garapen arazoen konplexutasunari dagokionez, horien arteko mendekotasuna eta munduko herrialde guztietan duten presentzia kontuan hartuta; hori dela eta, helburu eraldatzaileak planteatu behar dira, zeinak eramango baikaituzte garapen eredu berri batera. Horregatik guztiagatik, uste sendoa dugu aurrez aurre ditugun erronka horiei ezin zaiela sektore bakar batetik heldu; aitzitik, beharrezkoa da beste eragile batzuek ere parte hartzea, beste ikusmolde, ikuspegi eta gaitasun batzuk

ekar ditzaten; izan ere, elkarren osagarri izanik, sinergiak sortu eta helburu horiek lortzen lagunduko digute.

Koordinazio handiagoaren premia hori hainbat mailatan ikusten dugu:

**Pobreziaren eta desberdintasunen sorburuan dauden kausen aniztasunaren aurrean, ezinbestekoa da, orobat, eragile ugari inplikatzeari.**

■ **Erakundeen artean:** Lankidetzaren Euskal Legeak bere printzipio gidarrietan adierazitakoari jarraituz, *“Administrazio publikoek beharrezko koordinazio mekanismoak bultzatu behar dituzte beren artean, bai eta beste administrazio publiko batzuekin, erakundeekin, agentziekin eta nazioarteko lankidetzaren erakundeekin ere, koherentzia handiagoa lortuko bada”*. Ildo horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Gipuzkoako lurraldeak

lankidetzaren arloan duen konpromisoa, beste toki administrazio batzuekiko berdintasunean oinarrituta, lurralde historikoko udal guztiek lankidetzaren arloan jarduteko irizpide komunei dagokienez adostasuna bultzatuko duena, eta, horretarako, GFAREN beraren eta horiek garatu dituzten udalen jardunbide egokiak partekatuko dira.

■ **Lurraldeko hainbat gizarte erakundetan:** garapen eragile gisa gero eta eragile gehiagok parte hartzea erraztuz, lankidetzaren eragile izan litezkeen aniztasunarekin artikulatuta; horien artean GGKEak nabarmen dira.

■ **Tokian bertan:** Hegoaldeko herrialde bateko lurralde berean lan egiten duten erakunde guztien koordinazioa sustatuz, bai GGKE-ena, bai bestelako eragileena.

### 3.3. Genero berdintasuna

Gipuzkoako lankidetzak etenik gabe egin du emakumeen eskubideen alde, hasi zenetik beretik. Urte horietan guztietan zehar, sendotzen joan da ikuspegi horren zeharkako izaera, eta orobat handitzen joan da emakumeen eskubide horiei emandako proiektzioa, Aldundiak oro har sustatzen duen berdintasun politikarekin bat eginez.

**Emakumeen aurkako edozein bazterkeria mota gainditzeko helburua presente dago Gipuzkoako lankidetzaren esparruko ekintza guztietan.**

Emakumeen aurkako edozein bazterkeria mota gainditzeari, bai eremu publikoan bai pribatuan, helburu saihetsezina da, eta esku hartze guztietan bilatu behar da, etenik gabe, ez bakarrik justiziaren printzipioagatik, baizik eta emakumeek gizonetik dituzten mendekotasun harremanak oinarri dituen garapena gure lankidetzaren politikaren bitartez lortu nahi dugunaren guztiz kontrakoa delako.

### 3.4. Parte hartzea

Giza garapen jasagarriak garapen ereduaren erdigunean jartzen ditu pertsonak, eta eredu horren gaitasunak indartzeko proposamenak esparru demokratiko batean baino ez du zentzurik, non leku nabarmena eduki behar baitute parte hartze indibidualek zein kolektiboek.

Printzipio hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoaren baitan kokatzen da. Plan horretan *“agenda publikoaren gogoetan eta osaera estrategikoan hainbat eragile*

*sozialen parte hartzea eta lankidetzaren posible eta eraginkorra izan dadin GFaren konpromiso instituzionalean oinarritutako eredu bat*” proposatzen da. Hori dela eta, gure lankidetzaren definitzen duen osagaietako bat izaera parte hartzailea da, eta hainbat prozesutan dago presente: politiken formulazioan, horien betearazpenean, Gipuzkoako gizarte zibila eta lan eremu dituzten Hegoaldeko lurraldeak prozesu horietan sartzeko zereginen; azken kasu horretan, tokiko erakundeek GGKE-ekin duten aliantzaren bitartez egingo da lan hori.

Partaidetza ez dugu helburutzat hartzen, baliabidetzat baizik, hain zuzen ere, gure politikak eta politiketatik eratorritako diren esku hartzeek, alde batetik, herritarrek adierazitako beharrei eta eskaerei erantzuten dietela bermatzeko baliabidetzat eta, beste aldetik, esku hartze horien planteamenduak parte hartzen duten kolektiboen kultura jarraibideekin bateragarriak direla bermatzeko baliabidetzat.

**Parte hartzearen printzipioa garapenerako lankidetzan egiten dugun lanarekin zerikusia duten prozesu guztietan agertu behar duen ikuspegitza hartzen dugu.**

Ildo horretan, azpimarratu behar da GGKEak beti izan direla elkartasunarekin konprometituta dauden pertsona guztiek parte hartzeko bidea; hortaz, horiek indartzea aurrera egiteko bidea da, hain zuzen ere, herrialde pobretuekiko elkartasunaren eta erantzukizunaren aldeko eta gizartearen eraldatzeko hezkuntzaren aldeko Gipuzkoako kultura parte hartzaile baterantz egiteko bidea. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu GGKEek etorkizunean funtsezko zeregina izaten jarraitzea garapenerako gure lankidetzaren politika gauzatzean.

### **3.5. Ingurumena**

Ingurumenaren jasangarritasunak gero eta leku nabarmenagoa du lankidetzarako politiketan, gero eta nabarmenagoak baitira garapen ereduak ingurumenean dituen ondorioak, klima aldaketan adieraziak. 2030 Agendak eta Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioak arreta handia jartzen dute gizateriari eragiten dion arazo horretan, eta horri modu erabakigarrian aurre egiteko ekimenak abian jartzea proposatzen du. Azken batean, giza bizitzaren jasangarritasuna bermatzea da helburua; izan ere, gaur egun, klima aldaketak eta haren adierazpenek muturreko fenomeno naturalen bitartez pertsonen bizitzan duten eraginaren lekuko gara, batez ere talde ahulenen bizitzan, hala nola emakumeenean; izan ere, talde horiek lan karga handiagoa jasaten dute, eta segurtasun falta handiagoa dute hondamendi naturalen aurrean. Gerrak, gatazkak, nahitaezko migrazioak, bizibideen suntsipena, horiek guztiak dira mundu osoko gizartei eragiten dien klima aldaketaren ondorioetako batzuk.

**Aldaketa klimatikoaren aurka egitea ezinbesteko baldintza da giza garapenak dakartzan helburuak erdiesteko.**

2030 Agendak baliabide naturalak babestea eta hazkunde ekonomiko jasangarria babesteko eskaera egiten du, ez bakarrik ikuspegi sozialetik, baita ingurumenari dagokionez ere. Agenda horrek adierazten duenarekin bat etorritik, Gipuzkoako lankidetzak hitz ematen du bizitzan ari garen ingurumenaren degradazio prozesuaren aurka borrokatuko dela, eta gizartearen gaitasunak indartuko dituela.

### **3.6. Ebaluazioa**

Prozesu parte hartzailetzat hartzen da ebaluazioa, zeinetan proiektu, programa edo politika batean esku hartu duten eragileek, haietatik abiatuta, ikaskuntzak lortu nahi baitituzte, beren lan proposamenak, bai kudeaketari, bai hark etorkizunean izango duen edukiarri dagokionez, hobetuko dituzten erabakiak hartu ahal izateko. Ebaluazioa, hortaz, lankidetzaren eraginkorra sortzeko helburuaren parte da, eta bat dator gure gain hartzen dugun esparruan definitutako printzipioekin.


Ondo egindakotik eta akatsetatik ikastea da gure lanaren eragina optimizatuko duen kalitatezko lankidetzaz lortzeko biderik eraginkorrena.

Ebaluazioa, hortaz, ikaskuntza kolektiborako tresna bat da, eta horrek iraganean egindakoa ikuspegi kritikotik berrikustera bultzatzen gaitu, etorkizuneko gure planteamenduak eta esku hartzeak gure lankidetzaz politikaren ildoetara doitasunez egokitzeko helburuarekin.

### 3.7. Gardentasuna

Gardentasunaren printzipioa atxikita dago gainerako printzipioei, gorago azalduetako moduan ulertzen ditugularik. Horietako bakar bat ere ezin da ase gizarteari oro har eta garapenerako lankidetzaz parte hartzen duten eragile guztiei kontu eman gabe. Hala ere, pentsatzen dugu printzipio horren garrantzia nahikoa dela bereizita aintzat hartzeko, jokabide etikoaren bermea baita, Gida Plan honetan onartzen dugunarekin zerikusirik ez duen beste edozein interesetatik urrun. Era berean, uste osoa dugu lankidetzaz parte hartzen duten eragile guztien elkarrenganako betebeharrak dela, gainerakoei eta, oro har, gizarte osoari erakusteko zer egiten duen bakoitzak; era horretara, politika publiko honen edukia eta ekintzak herritarren artean zabaltzen lagunduko da.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta haien lurraldeetako hiriburuek eta Euskal Fondoak elkarrekin hartutako erakunde arteko ekimena (Euskal Lankidetzaz Publikoaren Ataria sortzeko ekimena<sup>5</sup>) onartu dugu eta hitz ematen dugu modu aktiboan parte hartuko dugula. Aipatutako erakundeen egitekoari buruzko informazio zehatza dago ekimen horretan, eta gizartearekiko gardentasunaren eredu egokia da.



2. grafikoa: Printzipio gidariak.

5 <https://euskalankidetzaz.hegoa.ehu.es/>

## 4. Helburu estrategikoak

Garapen politiken izaerak esku hartze aukera zabala hartzen du, Garapen Jasangarriko Helburuetatik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz estrategiatik ondorioztatzen den bezala. Gure ustez, gauditua dago hazkunde ekonomikoari hertsiki lotuta dagoen garapenaren ikuspegia; gai horrek, garrantzitsua izanik ere, ez du lehen lerroan egon behar, gizartearen ongizatearekin lotutako beste helburu batzuen zerbitzura baizik, gure ingurune naturalarekiko harreman zibilizatuko esparruan.

Bestalde, gure erreferentzia esparruan adierazi bezala, gure gaitasunez baliatzeak ematen dio zentzua Gipuzkoako eta administrazioko beste esparru batzuetako lankidetzari, eta, beraz, gure berezitasunak kontuan hartuta, zigilu berezi bat emango dion lankidetzara bultzatu behar dugu. Hori dela eta, helburu estrategiko batzuk definitzen ditugu, eta helburu horiek hartu behar dira kontuan gida plan honen eta planaren indarraldian bultzatzen diren esku hartze guztien artean dagoen lotura zuzenekoentzat.

### 4.1. Pertsonen gaitasunak handitzea

Giza garapen jasangarriaren ikuspegia da gaur egungo lankidetzara ereduaren ardatza, eta horren inguruan diseinatzen dira garapen agendak. Ikuspegi horrek pertsonak eta haien gaitasunen garapena jartzen ditu bere proposamenaren erdigunean. NBGPak berak dioenez, garapen jasangarriaren helburua *“gaitasunak indartzea eta aukerak eskuratzeko ingurune egokia eskaintzea da”*<sup>6</sup>. Hau da, gaur egun garapenerako lankidetzaren oinarrian pertsonen gaitasunak indartzea dago, eta zeharkako helburua izan behar du edozein ekimenetan, genero ikuspegia txertatuz, gainera.

Nazio Batuen 2030 Agenda osoan inpliziturik dagoen lana da hori; izan ere, agenda horrek ikuspegi integral batetik sustatzen du garapen jasangarria, eta ikuspegi horrek aintzat hartzen ditu gizartearen, politikaren, ekonomiaren eta ingurumenaren esparruak, pertsonak jarritz Agenda horren helburu eraldatzaileen erdigunean. Horretarako, funtsezkoa da beren gaitasunek aukera ematea partaide diren ekimenak sortzeko, gidatzeko eta babesteko. Giza garapen jasangarriak ez ditu pertsonak subjektu pasibotzat hartzen; aitzitik, beren garapenaren protagonista aktibotzat hartzen ditu, eta garapena ez du soilik ikuspegi indibidualetik ulertzen, ikuspegi kolektibotik ere ulertzen du, bai eta dimentsio anitzeko ikuspegi batetik ere, gaitasun politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen garapena kontuan hartuz.

**Gaitasunen garapena alde aurreko baldintza da pertsonen eta komunitateen sortzeko duten ahalmena garatu ahal izateko, beren bizi baldintzak hobetzeko irtenbideen bilaketan.**

Gaitasunen garapena pertsonen baldintzak hobetzera bideratuta dago, pertsona horiek aurkitzen dituzten aukeren eta aurre egin behar dieten arazoaren aurrean sortzeko duten gaitasuna garatu dezaten. Hori gertatuko bada, gaitasun berriak garatu behar dira, testuinguru egokian aplikatu ahalak direnak, harreman sozial, politiko eta ekonomikoak eraldatzeko proposamenak bere egiteko gai izango den esparruan. Helburu honekin

6 <https://www.undp.org/content/undp/es/home/sustainable-development.html>

zuzenean lotzen diren dimentsio batzuk lurralde jakin bateko arau esparruetan eta esparru sozialetan islatzen dira, gizabanakoen gaitasunen garapena erraztuz edo oztopatuz, baina, bereziki lotzen dira komunitatearen giza garapen jasangarria eragozten duten faktoreen eragina ezabatzeke edo arintzeko jarraitu beharreko bideari buruz gizarte batek duen ikuspegiarekin.

Gaitasunak garatzeko helburua lortzeko, herritartasun globalaren ikuspegitik lan egitea da eskura dugun tresnarik eraginkorrena, hau da, gizarte kritiko bat, giza garapen jasangarriaren dimentsio nagusiekin konprometituia, hala nola bakearekin, giza eskubideekin, genero berdintasunarekin, ingurumenarekin eta kulturartekotasunarekin. Helburu hori 2030 Agendaren helburuetako batean adierazten da, 4.7 helburuan hain justu, zeinak egiten baitu garapen jasangarria eta munduko herritartasuna bultzatuko duen hezkuntzaren alde eta, era berean, erantzuten baitio Agenda hori osatzeko erabili zen espiritu unibertsalari. Espiritu unibertsal horren arabera, garapenari dagozkion helburuak herritarren sektore guztien parte hartze aktiboaren bitartez baino ez dira lortuko, eta, horretarako, desberdintasunei eta pobrezia bide ematen dieten kausak eta, orobat, horiek eraldatzeko bideak zein diren ulertzen direla bermatu behar da.

#### Esku hartzeko ildoak:

- Bizitza luzea eta osasungarria bermatuko duten politikak sustatzea, gaixotasunak eta osasun arazoak ez daitezen izan pertsonen gaitasunak garatzeko oztopo.
- Pertsonen diru sarrerak hobetzeko estrategiak indartzea, halako eran, non pertsonak, beren oinarritzko premiez gainera, aseak edukiko baitituzte bizitza duina edukitzeko aukera emango dieten premia guztiak.
- Kalitatezko hezkuntza edukitzeko aukera bermatzea, ezagutzak handitzeko eta pertsonen garapenari begira gaitasunak eta trebetasunak indartzeko, arreta berezia jarritz talde ahulenei eta lehentasun horren lorpena eragotzi ohi duten larrialdi egoerei.
- Genero berdintasuna bermatzea helburu horrekin lotura duen edozein ekimenetan, emakume zein gizonen beren gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten.
- Giza garapen jasangarriak mundu mailan eragiten dituen arazo eta erronkei dagokienez kritikoak, jakitunak eta konprometituak diren herritarrak sortzea.
- Lurralde guztietako bake eta segurtasun prozesuei laguntzea, ezinbesteko testuingurua baita pertsonak edozein eremutan garatzeko.
- Hezkuntzaren eta informazioaren bitartez emakumeen lidergoa sustatzea, halako eran non munduaren garapen jasangarriaren aldeko konpromisoak hartuko baitituzte.

## 4.2. Ekonomia sozial eta solidarioa (ESS)

Ekonomia sozialak –zeinak etekinik handienaren mende jartzen dituen lan baldintza duinak, zeina egituratuta dagoen, modu naturalean, ekonomia solidarioarekin, zeinak zalantzan jartzen dituen ekoizpenean esku hartzen duten alderdien eskubide eta betebeharren esleipen asimetriko eta bidegabean oinarritutako ekoizpena antolatzeko modu tradizionala– binomio bat osatzen du harreman ekonomikoen esparruan, eta guztiz bat dator Gida Plan honen oinarri diren printzipio eta balioen defentsarekin. Bere mezua ez da soilik ekoizpenaren esparrura mugatzen; kontsumoaren eremua ere hartzen du, eta genero desberdintasunen, ingurumenaren gaineko eraginaren edo haurren lanaren aurrean erantzukizunez eta modu kritikoa jardutea eskatzen du, batzuk aipatzearen.

Ekoititako ondasun edo zerbitzuek finantzen merkatuan balioa sortzea ez da ESSaren erreferentzia bakarra, ezta erreferentzia nagusia ere, beste kasu batzuetan gertatzen den bezala; aitzitik, jarduera ekonomikoan beste erreferentzia mota batzuk gailentzen dira, hala nola nagusiki emakumeek egiten duten eta ikusezin bihurtu den zaintza lana balioztatzea, familia eremuarekin bateragarri egitea edo erabilitako baliabide naturalak leheneratzea. “*Ekonomiaren erdigunean jartzen du ESSak pertsonen ongizatea, eta helburu hori lortzeko bitarteko soiltzat hartzen ditu baliabideak, aberastasuna, ekoizpena eta kontsumoa*”<sup>7</sup>; ESSari buruzko iritzi horrek lotura estua du giza garapen jasangarriarekin, eta, beraz, gero eta leku nabarmenagoa hartu behar du garapen agendetan, balio unibertsalean oinarritutako enpresa jarduera batek (hala nola justizian, berdintasunean eta solidaritatean) eragin positiboa izango baitu, besteak beste, garapen jasangarriaren helburu nagusietan –genero berdintasuna, talde zaugarrien desberdintasun ekonomikoak murriztea–, horiek lan merkatuan sartuz eta ingurumena babestuz.

**Ekoizpenaren esparruan, ezinbestekoa da gehieneko etekinaren lorpena lan baldintza duinen mende egotea. Eta kontsumoaren esparruan, erantzukizun solidarioa norberaren gogobetetzearen gainetik jartzea.**

Horregatik, gero eta garrantzitsuagoa da ESSa garatzera bideratutako gaitasunak indartzea; gaitasun horiek pertsoneri eta sektore horretan lan egiten duten erakundeei dagozkie. Ikuspuntu partikularragotik, ekonomia sozial eta solidarioa aspalditik ari da gure lurraldean hedatzen, baita lankidetzan dihardugun lekuetan ere, eta kontuan hartuta giza garapen jasangarria ardatz nagusi duen ikuspegia hartzen duela oinarri, irabazia helburu izatetik haratago, garapenaren izaera integralari eta gure lankidetzak sustatzen duten printzipioei erantzun koherentea ematen dion esku hartzeko sektorea da.

Hori guztia oinarri hartuta, Gipuzkoako garapenerako lankidetzak sustatzen dituen harreman ekonomikoei buruzko ekintzak, bai nazioarteko lankidetzakoak bai Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntzakoak, bat etorriko dira ekonomia sozial eta solidariorik sortzen diren printzipio eta planteamenduekin, bai ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren etapan, bai kontsumoari dagokionean.

<sup>7</sup> <https://www.economiasolidaria.org/recursos/biblioteca-la-economia-social-y-solidaria-una-economia-para-las-personas/>



#### Esku hartzeko ildoak:

- Kontsumo kritiko eta arduratsuko ohiturak sustatzea, ondasunak eta zerbitzuak kontsumitzen dituztenen beharrak asetzeaz gain, horiek ekoizten dituztenen interesak ere kontuan hartuz.
- Finantza etikoen erakundeak edo mekanismoak abian jartzea erraztuko duten esparru arauemaileak, politikak eta ikerketak sustatzea, onura ekonomikoaren gainetik gizarte onura bilatuz, garapen jasangarriko proposamenak sustatzeko modu gisa.
- Hezkuntzaren eremura eramatea elkartasunaren, ekitatearen, justiziaren eta berdintasunaren balio unibertsalak, harreman ekonomikoari dagokien guztian.
- Gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekoizpen modu berriak sustatzea, ESSaren printzipioetan oinarrituta.
- Gaur egungo enpresa sistemak garapenerako politikekiko koherentzian oinarritutako barne politika bere egin dezan sustatzea, sektore publikoarekin egiten den modu berean eta garapen eredu berri batera igarotzeko ezinbesteko urrats gisa.
- Herritarrak sentsibilizatzea munduko gizarte guztietan harremanak gobernatu behar dituzten kontsumo, antolaketa eta ekoizpen modu berriei buruz, giza garapenarekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako herritartasunerako bidean aurrera egiteko.
- Gizartearen giza garapenari eta garapen jasangarriari aplikatutako ekonomia sozial eta solidarioari buruzko ikerketa sustatzea.

### 4.3. Desberdintasunak murriztea

Desberdintasuna murriztearen helburua ez da aldatu garapenerako lankidetzako lana abian jarri zenetik beretik, eta hurrenez hurren definitzen joan diren garapen politiketako eta agendetako helburu guztien oinarrian dago. Desberdintasuna zentzu zabalean ulertu behar da, pertsonak eta lurraldeak barne hartuko dituen, izaera ekonomiko, sozial eta politikoko alderdiei dagokienez; era horretara, oztopo garrantzitsua bihurtzen da desberdintasuna, pertsona guztiek giza eskubideetara baldintza berdinetan iritsi eta gozatu ahal izateko eta herri guztiek beren garapen prozesuetan modu baketsuan aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

2030 Agendaren arabera, Garapen Jasangarriko Helburuetako bat, 10. GJHa hain zuzen, desberdintasunak murriztea da, eta Agenda horren printzipio nagusia da inor ez gelditzea atzean gobernuak helburu hori lortzeko egiten duten ahaleginean. Bereziki premiazkoa da genero desberdintasunen esparruan esku hartzea. Emakumeen eta gizonen arteko harremanetan beren generoen eraikuntza sozialetik sortutako asimetria nabarmena, bidegabea ez ezik, faktore mugatzailea ere bada bi sexuen eta sortzen dituzten gizartearen garapenean. Baina ez gara eremu horretaz soilik ari desberdintasunez ari garenean; arrazakeriari eta xenofobiari, kasta edo etnia arrazoiengatik mendekotasunari, LGTBI



kolektiboaren aurkako diskriminazioari eta, oro har, biztanleria ahulenak pairatzen duenari ere aurre egin behar diegu, horien inklusio soziala eta gizarteratzea eragozten baitu.

COVID-19ak eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisiak agerian utzi ditu, eta baita areagotu ere, aipatutako desberdintasunak munduko gizarte guztietan, eta ez herrialde pobretuetan bakarrik. Bizigarritasun baldintza txarrak, lan prekarioa eta ordainsari txikiak, zenbait kolektiboren arriskua areagotzen duten mugatzaile sozialak, kalitateko hezkuntza edukitzeko zailtasunak, ingurune sozial osasungaitzak eta segurtasun gutxikoak; horiek guztiak dira gure gizarteko kolektibo ahulenen bizi baldintzetako batzuk, eta horien ondorioz lehen biktima bihurtzen dira gaur egungoaren antzeko krisi egoeretan; egiturazko zailtasunak dira, beren gaitasunak aukera berdintasunean garatu ahal izateko zailtasunak. Ildo horretan, gure lankidetzak politikak desberdintasunen ondorioez jabetzea du helburu, bai eta horiek murrizten edo desagertzen laguntzen duen edozein ekimen sustatzea ere.

Gaur ezagutzen ditugun muturreko desberdintasunak ezabatzea giltzarria da giza garapen jasangarria eraikitzeko prozesuan.

#### Esku hartzeko ildoak:

- Familiei *per capita* diru sarrerak bermatuko dizkieten ekimenak garatzea, haien beharrak ase eta gaitasunak gara ditzaten, bereziki egoera ahulenean dauden kolektiboek dagokienez.
- Oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, hala nola osasuna, hezkuntza, ura eta saneamendua, zerbitzu horiek ez daitezkeen pertsonen gaitasunak garatzeko oztopo bihurtu.
- Legeetan jasotako eskubideak betetzen dituzten ekimenak garatzea, berdintasuna ikuspegi sozialetik aintzat hartuko den moduan, eta ez soilik ikuspegi normatibotik.
- Gizarte babesaren ziurtatzea krisi egoeretan ahulak diren taldeentzat.
- Herritarrengan berdintasunaren aldeko eta diskriminazio mota ororen aurkako kontzientzia sortzea.
- Ekimen guztietan genero ikuspegia bermatzea, gizarte guztiei eragiten dien desberdintasun nagusia murrizteko.
- Emakumeen eta haien sexu orientazioagatiko beste kolektibo batzuen, desgaitasunen bat duten pertsonen, migratzaileen eta errefuxiatuen, giza eskubideen defendatzaileen eta hainbat arrazoiengatik diskriminazioa jasaten duen beste edozein talderen aurka erabiltzen den indarkeriari aurre egitea.

#### 4.4. Gobernantza

Garapenerako lankidetzari dagozkion arazoen jatorria, neurri handi batean, honako biak dira: erakunde publiko ahulak –eta zenbait lurraldetan hori ere ez–, eta beren testuinguruaren garapenari buruzko ikuspeirik eza. Hori agerian geratu da COVID-19aren pandemiarekin, baina aurretik ere gertatzen ari zen, duela hamarkada batzuek geroztik, gizartearen esparru guztietan: osasunean, hezkuntzan, gizarteratzean, enpleguan, indarkerian... Estaturik ez egotea edo Estatuaren presentzia lekukotasunezkoa izatea gizarte askoren egoera larriaren azalpena dira; horregatik, beharrezkoa da gobernu egiturak indartzea, batez ere tokian tokikoak, eta arlo publikoaren kudeaketan esku hartzeko gaitasuna handitzea, gobernatutako komunitateen mesedetan.

Nolanahi ere, kontua ez da soilik gizartearen antolamendu eskeman goiko aldeari eragitea, hau da, gobernu arkitekturaren parte diren egitura egonkorrei eragitea; orobat garrantzitsua da beren komunitatearen garapenaren eraikuntzan betetzen duten paper protagonistaz jabetzen diren herritarrak edukitzea. Ildo horretan, gizartearen eraldaketarako hezkuntza garrantzizko proposamena da ulertzeko zer dinamikek eramaten duten, zentzu positiboan zein negatiboan, gizarte bakoitzean ezagutzen ditugun harreman sozialen, politikoen eta ekonomikoen planteamendura. Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntza ikuspegi individualistak gainditzeko bidea da; izan ere, ikuspegi horiek guztiak elkartuko balira ere, ez lirateke, inoiz, gizartearen interesen kontra diharduten indarren aurreko kontzientzia kolektiboa osatzera iritsiko.

##### Beharrezkoa da gobernuen eta gizartearen izaera erlazionala indartzea, herritartasun globalaren ikuspegitik.

Gobernagarritasun arazo bat dago, aurreko bi paragrafoetan aipatutako zentzuan; baina tokiko dinamiketatik harago doazen dinamika politiko eta sozialen arteko erlazioa gero eta handiagoa den testuinguruan, gainera, beharrezkoa da gobernuen eta gizartearen izaera erlazionala indartzea. Horrek esan nahi du, gobernuak izanda ere tokiko ekintza publikoaren arduradunak, jada ezin dela modu bertikalean

esku hartu hauteskunde garaien artean; aitzitik, etengabe hartu behar dela kontuan gobernu bakoitzak nola eskaintzen dituen baliabideak, bere ingurunearekin modu positiboan jarduteko. Erantzukizunak, neurri batean, partekatuta dauden gobernantza eskema batean, funtsezkoak dira gizartea eta gizarte hori ordezkatzeko erakundeak; tokikoaren eremuan alderdi publikoaren kudeaketara iristen diren dinamikak ere, zeinak izan baitaitezke urrunekoak, garrantzitsuak dira gobernantzaren planteamenduan; erakundearen arteko koordinazioa, gardentasuna, adostasuna edo parte hartzea, halaber, Gipuzkoako lankidetzatik bultzatu nahi dugun gobernantza ideari datzekion jardunbideak dira.

Planteamendu horrekin bat eginez, Nazio Batuen Garapenerako Programak honela adierazten du: *“garrantzitsua da giza eskubideetan eta zuzenbide estatuan oinarritutako bakea eta gobernantza sendotzea, erakunde sendoen bitartez”*<sup>8</sup>. Hori 16. GJHan islatzen da, non aipatzen baita erakunde ahulak mehatxu bat direla garapen jasangarriko.

8 <https://www.un.org/ruleoflaw/es/thematic-areas/governance/>

#### Esku hartzeko ildoak:

- Zuzendaritza organoetan ordezkari-tza paritarioa duten gizarte zibileko erakundeak indartzen laguntzea.
- Emakumeek erabakigune publiko edo sozialetan parte har dezaten sustatzea.
- Izaera publikoko gobernu egiturei laguntza materiala eta teknikoa ematea.
- Tokiko garapenari eta lurralde plangintzako prozesuei buruzko prestakuntza ematea, ikuspegi feministatik parte hartuz.
- Adostasun publiko sozialerako espazioak sustatzea.
- Gobernantzari eta garapenari buruzko ikerketak egitea.

#### 4.5. Kulturartekotasuna

Gizarteetan kulturartekotasuna kontuan hartzeak gero eta garrantzi handiagoa du garapenerako planetan; izan ere, pertsonen mugikortasuna globalizazioaren aurpegi-rik ikusgarri-neretako bat dela erakutsi da mundu osoan zehar, nahitaezko diren eta nahitaezkoak ez diren migrazioen bitartez. Munduko gizarte guztietan gero eta gehiago bizi gara erre-alityte kultural desberdinetatik etorritako pertsonak, hau da, mundua ulertzeko, pentsatzeko, hitz egiteko edo antolatze-ko modu elkarren oso desberdinak dituzten pertsonak, testuinguru desberdinetan ikasitakoak, elkarrekin bizi gara. UNESCOk honela definitzen du kulturartekotasuna: “*Hainbat kulturaren presentzia eta elkarrekintza ekitatiboa eta kultura adierazpen partekatuak sortze-ko aukera, elkarriketaren eta elkarrekiko errespetuaren bidez*”, eta atzean uzten du ikuspegi kolonizatzailea, zeinaren mende garatu baitziren luzaroan kultura harremanak. Kulturen beren barruan ere, emakumeek eta gizonek, beren generoaren eraikuntzatik abiatuta, modu eta ikuspuntu desberdinetatik laguntzen diote identitate kulturalari, eta, normalean, lehenengoak desabantaila posizioan egoten dira bigarren-eri buruz.

Gizarteek duten kultura-aberastasuna gizarte horien garapenerako aktibo izan dadin, beharrezkoa da begirada zabal bat izatea, horrek harreman multzoa ulertzen lagunduko baitigu, bakoitzak bere hurbileneko ingurune-ko esperientziatik abiatuta eraikitako esparru kulturaletik haratago. Zenbait jarraibide kultural funtsezkoak dira kolektibo jakin batzuetan, pertsonak taldearekin identifikatzeko, horrek kohesioa eta egonkortasuna emango baitio taldeari; baina beste batzuentzat ez dute garrantzirik, eta alderantziz. Gipuzkoako garapenerako lankidetzak bere egiten du planteamendu hori, eta hitz ematen du dagoen tokian dagoela ere sustatuko duela, giza eskubideen errespetua izanik muga bakarra.

**Kulturartekotasuna fenomeno gero eta handiagoa da gizarte guztietan eta globalizazioari loturik dago. Herrien kultura aberasteko aukera bat da.**

9 <https://es.unesco.org/creativity/interculturalidad>

#### Esku hartzeko ildoak:

- Kulturen arteko desadostasuna eta gatazka eragiten duten faktoreak identifikatzea eta horiei aurre egitea.
- Genero rola desmitifikatzea, kultura-identitatea osatzen duten elementu gisa.
- Kulturen arteko topaketa sustatzea, haien garapena ulertzeko eta arazo komunei aurre egiteko moduak kontrastatuz.
- Kulturizazio prozesuei eta kulturen arteko konfrontazioaren oinarri diren erreferentziatzeko esparruen eraikuntza prozesuei buruzko ikerketa.
- Zenbait kulturari buruzko estereotipoak sendotzen dituzten aurreiritziei aurre egitea, kultura hegemonikoen mesederako izaten baitira.

#### 4.6. Alaguntza humanitaria eta larrialdikoa

Adierazi bezala, gure lankidetzak epe luzeko prozesuak babestearen aldeko apustua egiten du, pobrezia eta era askotako desberdintasunak eragiten dituzten egiturazko baldintzetan aldaketak lortzen laguntzeko. Horretara iristeko, goian adierazitako bost esku hartze eremuak identifikatu ditugu. Hala ere, baldintza horiek muturreko adierazpenak dituzte egoera jakin batzuetan, eta, horien ondorioz, berehalako aldaketak eta aldaketa dramatikoak gertatzen dira gatazka armatuen edo hondamendi naturalen biktima diren herrietan. Urtero, munduko milioika pertsonak arriskuan dituzte beren bizitzak bat-batean sortutako egoerengatik, eta egoera horretan ezin da garapen prozesurik planifikatu; aitzitik, ezinbestekoa da azkar esku hartzea, gutxieneko baldintza duinetan gertatu dadin larrialdiaren biktimen biziraupena eta segurtasuna.

Laguntza mota horrek, humanitarioak eta larrialdikoak, ez badio ere erantzuten Gida Plan honen planteamendu orokorrari, zeina baitago pobrezia eta desberdintasunen kausen eraldaketan zentratua, zuzen-zuzenean baliatzen du plan horrek bultzatzen duen eta, zalantzarik gabe, Gipuzkoako gizarteak partekatzen duen elkartasun espiritua.

Eremu horretako esku hartzeak bi motatakoak izango dira, eta kasu batean zein bestean hartuko dira kontuan emakumeak, emakume izateagatik, bi aldeetatik biktimizatzen dituzten inguruabarrak:

- Larrialdi egoeran dauden biztanleek elikadurari, osasunari, babesari eta oinarrizko hezkuntzari dagokienez dituzten beharrak asetzeko premiazko laguntzak.
- Pertsonen segurtasunari eta etorkizunean komunitateak garatzeko izango dituen aukerei eragiten dieten larrialdi egoeren ondorioak zuzentzeko laguntzak.

## 5. Esparru operatiboa

Aurreko orrialdeetan azaldu da zer gogoeta egiten dugun lortu nahi dugun garapen ideiarekin zerikusia duen guztiaren izaera integral eta globalari buruz. Baina, gizartearen ongizateari laguntzen dioten alderdiez eta horiek nazioarteko harremanen esparruan hartzen diren erabakiekin duten loturaz gain, kontuan hartu behar dira, besteak beste, gertaera berberak bizitzeko modu desberdinak, jarraibide kultural jakin batzuetatik, genero arauemaile baten esleipenetik edo klase baldintzatik abiatuta proiektatzen diren begiradak, maila kolektiboan subjektibotasunen eraikuntza azaltzen duten beste faktore batzuen artean.

Migrazioaren fenomenoak ere ondorio desberdinak ditu, emigrazioa eragiten duen arrazoiaren, desplazatzen diren pertsonen sexuaren edo jatorrizko gizartearen ezaugarrien arabera. Eta aniztasun hori bera dago politikarekin, ekonomiarekin eta, oro har, gizartearen eraketarekin zerikusia duten beste prozesu batzuetan ere. Ondorioz, ezin ditugu baliozkotzat jo logika lineal batean oinarritutako analisiak, zeinak, kausa batzuetatik abiatuta, ezinbestean eramaten baikaituzte ondorio batzuetara; edo egoera ezin hobe bat proposatzen baitute aurrez aurre dituzten arazoaren irtenbide bakar gisa. Aitzitik, kausak eta efektuak, bai eta helburu jakin batzuk lortzeko bitartekoak ere, elkarri lotuta egoten dira, elkar eragiten dioten elementu multzo bat eratuz, eta norabide anitzeko alternatibei begiratzen diete, beren bizi baldintzak hobetu nahi dituzten kolektiboen pertzepzioen arabera.

Gipuzkoako garapenerako lankidetzaren beste pieza bat da harremanek, interesek eta garapena ulertzeko moduek osatzen duten sare konplexu horretan. Esan bezala, pobrezia eta ekitaterik eza eragiten dituzten bidegabekeriak desagerrarazten laguntzea da gure lankidetzaren helburua, eta, hori lortzeko, ahalik eta ikuspegi eta modu gehien izan behar ditugu, bidegabekeria horien kausak ulertzeko, bai eta gizarteetan nola adierazten diren hautemateko eta, hortaz, arazoak gainditzeko har daitezkeen bide askotarikoak ulertzeko ere.

Gure izendatzaile komuna gizarte proiektzioa duten begirada guztiak sartzen diren esparru bat da; begirada horiek, hortaz, urrun daude gaur egungo egoera tokiko eta nazioarteko harreman ekonomikoen bilakaera naturalaren bitartez azaltzen duten dinamika haietatik. Gure ustez, bilakaera horrek sortzen ditu, arautu gabeko testuinguru batean, nazioarteko lankidetzari zentzua ematen dioten arazoak, hori baita ingurune hurbilean nahiz urrunenean ikusten ditugun desberdintasun nabarmenen aurrean ematen dugun erantzuna. Bilakaera hori da, halaber, gizarte eraldaketarako hezkuntzaren ideia eragiten duena, Iparraldeko herrialdeetan ohikoak diren kontsumo eta ekoizpen jarraibideak zalantzan jarriz eta pertsonen eta haien ingurune naturalaren arteko errespetuzko kultura bultzatuz.

**Gure lankidetzaren politika modu parte hartzailean jarriko da abian, urtero definitutako emaitzetara bideratuko da, eta etengabe ebaluatuko da haren jarduna.**

## 5.1 Gipuzkoako Lankidetza Mahaia

Testuinguru horretan, beharrezkoa da topaketarako gune bat prestatzea, egitekoak diren jardueren proposamenean eta, hala badagokio, gauzatzean parte har dezaketen eragile guztien topaketarako. Gune hori urtarrilaren 14ko 1/2020 Foru Dekretuaren bidez eratu zen (GAO 2020/01/23), Gipuzkoako Lankidetza Mahaia izenarekin, Foru Administrazioaren kontsultarako eta aholku emateko organo gisa.

Mahaiaren funtzioak eta osaera argi eta garbi zehaztuta daude dekretu horretan, eta haren bokazioa da lankidetzako eragile posible askoren parte hartzea eta delibramendua sustatzea, bai nazioarteko esku hartzeari dagokionez, bai gizarte eraldaketarako hezkuntzari dagokionez. Horregatik, topagune hau leku egokitzat jotzen dugu Gida Plan honen garapenean sortzen diren beharrei eta erronkei erantzungo dieten dinamikak sortzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusia arduratuko da Lankidetza Mahai hori dinamizatzeaz eta bertako kideen parte hartzea sustatzeaz.

## 5.2. Urteko esku hartze plana

Gure lankidetza jardueraren ikuskera dinamikoari buruz aurretik azaldutakoagatik (hau da, denboran zehar sortuko diren koiuntura aldaketei irekia), kontraesankorra litzateke adierazle zehatzak identifikatzea, Gida Plan honek indarrean dirauen urteetan lortutako lorpenak orain zehazteko helburuarekin. Hala ere, beharrezkoa da helbururen bat finkatzea, hortik abiatuta gure gain hartutako helburu estrategikoen lorpenean zenbat aurreratu den baloratu ahal izateko. Helburu horiek posizio errealista batetik planteatu behar dira, eta bat etorriko dira denboran zehar mobilizatzen ditugun gaitasunekin eta bere egingo dituzte modu aktiboan parte hartu behar duten erakundeek.

Planteamendu horri erantzuteko eratu da esku hartzeko urteko plana, zeina izango baita gure lankidetza politika praktikan jartzeko esparru operatiboaren osagaia. Urtero zehaztuko da zer jarduera egingo diren, eta adieraziko da zer helburu estrategikori erantzuten dioten, zer erakundek duten jarduera horiek egiteko ardura, zer epetan eta zer aurrekontu baliatu beharko den jarduera horiek gauzatzeko.

Plan horren edukiak Gipuzkoako Lankidetza Mahaiari jakinaraziko zaizkio, hark azter ditzan.

### **5.3. Ebaluazioa**


Lankidetzaren politika gauzatzeko zereginen esku hartzen duten alderdien hirugarren elementua ebaluazioa da. Hori jada zehaztu da gure lankidetzaren politikaren printzipio gisa, baina, aldi berean, elementu operatibo bat ere bada, jardueren urteko plangintza prozesuaren parte delako.

Ebaluazioa ikaskuntza metodo sistematiko gisa hartzen dugu, gauzatu diren esku hartzeetako arrakasta faktoreak ezagutzera bideratua, etorkizunean egin litezkeen esku hartzeetan errepikatzeak, eta orobat bideratua esku hartze horien beren garapena oztotatu zuten faktoreak ezagutzera, etorkizuneko esku hartze horietan zuzendu ahal izateko.

Gida Plan hau indarrean den bitartean, urteko esku hartze planaren ebaluazio bat egingo da, erregulariki, zeina erabiliko baita, neurri batean behintzat, hurrengo urteko plana identifikatzeko informazio iturri gisa. Horrez gainera, Gida Plan honen babesean abian jarritako beste edozein ekimen edo prozesuren ebaluazio berezia bultzatuko da. Egindako ebaluaziotik edo ebaluazioetatik lortutako emaitzak Lankidetzaren Mahaia osatzen duten erakundearen parte hartze aktiboaren ondorio izango dira, eta gure lurralde historikoko administrazioen artean zabalduko dira, eta baita gizartean ere, kontuak emateko eta foru lankidetzaren gure programak oihartzun handiagoa izan dezaten lortzeko.

### **5.4. Aurrekontu konpromisoa**

Garapenerako Lankidetzaren Gida Planak markatutako bidean aurrera egiteko, hainbat baliabide behar dira, bai gure Herrialde Historikoan dauden gaitasunekin lotutakoak, bai identifikatutako proiektuak gauzatzeko finantza-laguntzarekin lotutakoak. Horrela, GFAn bere gastu propioen aurrekontuaren % 0,7raino helduko den konpromisoa mantenduko du, bere garapenerako lankidetzaren programa osoa finantzatzeko.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbideetza, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN